



EBAZPENA, 2023ko uztailaren 21ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere, hautaketa-prozesuetarako zenbait deialditan jardungo duten Epaimahaietako eta Batzorde barematzailetako kideak izendatzeko zozketa iragartzen da (hautaketa-prozedurak 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAA), hautaketa-prozesuetarako zenbait deialdi egin ziren Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan aldi baterako enplegua egonkortzeko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko, bai eta aipatutako kidegoetan ohiko lehiaketa-oposizio bidez sartzeko eta horra iristeko ere.

Aipatutako Aginduaren 5.1 oinarriak ezartzen du hautaketa-organismoek egingo dutela prozesu honetako parte-hartzaileen hautaketa.

Izendapenari buruz, 5.2.2 oinarriak ezartzen du epaimahaikideek oinarri horretan aipatzen diren funtzionarioen artean egingo den zozketaren bidez hautatuko direla. Era berean, adierazten du horren data zozketa egin baino lehen iragarriko dela.

Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiak direla medio, beste hezkuntza-administrazio batzuei eskatu ahal izango zaie espezialitateko edo, hala badagokio, dagokion kidegoko funtzionarioak proposa ditzatela epaimahai horietan parte hartzeko, edo horiek beste espezialitate bateko funtzionarioekin osatu ahal izango dira.

Bestalde, aipatutako Aginduaren 5.4 oinarriak ezartzen duenez, espezialitate bakoitzean dauden eskatzaileen kopuruaren arabera, eta horren 5.7.3 oinarriaren aurreikuspenaren arabera, beharrezkoak diren Batzorde barematzaileak eratu ahal izango dira, espezialitateen edo espezialitate-taldeen arabera. Batzorde barematzaileak eratu behar izanez gero, epaimahaikideen zozketarekin batera egin ahal izango da batzorde horietako kideen zozketa.

Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT

Artikulu bakarra.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetan jardungo duten Epaimahaietako eta Batzorde barematzaileetako kideak izendatzeko zozketa (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren). Zozketa egingo da:

Eguna: 2023ko irailaren 15ean.

Ordua: 10:00etan

Tokia: Lakua 2 eraikineko 3. aretoan (sarbidea Donostia kalea 1-etik da, Gasteizen).

Vitoria-Gasteizen, 2023ko uztailaren 21ean.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.